



ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES
Viceconsejería de Políticas Sociales
Dirección de Servicios Sociales

AKTA BILERA 2019/12/09: ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA
2019/12/09KO BILERAREN AKTA EAE-KO ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA

Parte-hartzaileak:

PRESIDENTEA

- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jauna, FEVASen ordezkaria (adimen-urritasuna dutenen aldeko elkarteetako Euskal Federazioa).

IDAZKARIA

- LEIRE MARTÍNEZ PÉREZ andrea, gizarte-gaietako teknikaria (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza)

KARGUAGATIKO KIDEAK (boto-eskubiderik ez dutenak)

- LIDE AMILIBIA BERGARETXE andrea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Politiketako sailburuordea

KIDEAK (boto-eskubidea dutenak)

- JOSÉ ALBERTO VICENTE OCHOA jauna, *ASTIALDI SARE*Aren ordezkaria (*Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteekin esku-hartze sozialean eta aisialdi hezitzailean diharduten erakundeen sarea*)
- ESTIBALIZ BARRON, *EAPN Euskadiren* ordezkaria (*Euskadiko pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako europar sarea*).
- TXEMA FRANCO jauna, *EHLA*En ordezkaria (*Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte*a).
- MIKEL MALKORRA OCHOTORENA jauna, *ELKARTEAN* konfederazioaren ordezkaria (*Euskal Autonomia Erkidegoko Desgaitasun Fisiko eta Organikoa duten Pertsonen Konfederazio*a).
- TXEMA ODRIOZOLA AZURMENDI jauna eta JOSE AGUSTIN ARRIETA EGIGUREN jauna, *FEDERPEN*en ordezkaria (*Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarte*en *Lurralde Federazio*a).
- ESTEBAN RIVAS CALZADA jauna, *GIZATEA* elkartearen ordezkaria (*gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte*a).
- SORAIA CHACON RAMOS andrea, *HARRESIAK APURTU*Zen ordezkaria.
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO andrea, *HIRUKIDE*En ordezkaria (*Euskadiko familia ugarien elkarte*en federazioa).
- MIKEL MIRENA AGIRREZABAL ONDARRA, *LARES EUSKADI*ren ordezkaria.
- ELSA FUENTE DO-ROSARIO andrea, *UNICEF Euskadiko Batzorde*aren ordezkaria.
- CARLOS ASKUNZE JAUNA, *REAS EUSKADI*ren ordezkaria.
- RAFAEL LEDESMA JAUNA, *ONCE EUSKADI*ren ordezkaria.
- MARIA JOSE CANO MESIAS andrea, *FEDEAFES*en ordezkaria (*gaixotasun mentala dutenen eta haien senide*en elkarte*en Euskadiko Federazio*a).

- *BORJA DOVAL jauna, HIREKIN federazioaren ordezkaria (Euskadiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen federazioa).*

GONBIDATUAK:

- LUIS PETRIKORENA ARBELAIZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiaren zuzendaria.
- MARIO YOLDI DOMINGUEZ jauna, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendaria
- RAFAEL LOPEZ-AROSTEGUI MERINO jauna, Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako aholkularia.
- MIKEL BARTUREN NUÑO, SAREEN SAREAren koordinatzailea.

Lekua: EUSKO JAURLARITZAREN LAKUAKO EGOITZA (Lakua II, 6. aretoa)
Vitoria-Gasteiz

Eguna: 2019/12/09 (astelehena)

Ordua: 10:00-12:00

Mota: Ohikoa

Gai-zerrenda:

1. Aurreko bileraren akta onartzea.
2. 2020ko kudeaketa-plana
3. Zeharkako ekintzak:
 - Gobernu Irekiko Zuzendaritza (Luis Petrikorena Arbelaiz jauna).
 - Etxebizitza Plangintzako eta Prozesu Eragileetako Zuzendaritza (Mario Yoldi Dominguez jauna).
4. Itun sozialari buruzko dekretua.
5. Galdera eta eskaerak.

Hizkuntza: Gaztelania

Bilkura 2019ko abenduaren 9ko 10:05ean hasi da.

Euskadiko Elkarrietzeta Zibilerako Mahaiko lehendakariak (EEZM aurrerantzean), PABLO GONZALEZ GUTIERREZ jaunak (FEVAS), ongi-etorria egin die bertan daudenei, eta etorri izana eskertu.

Azaldu du Beatriz Artolazabal sailburua eta Marian Olabarrieta Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria ezin izan direla bertaratu agenda-arrazoiengatik.

Gai-zerrendari ekin baino lehen, jakinarazi du erakunde bakoitzeko pertsona batek parte hartu behar duela EEZMra; hala, erakunde bereko bi kide bertaratuko balira, ordezkaria horietako bakar bat izango litzateke, eta bestea, beraz, gonbidatua.

Bilera grabatuko dela adierazi da, eta gai-zerrendari ekin zaio:

1. AURREKO BILERAREN AKTA ONARTZEA

Bertaratuek aho batez onartu dute azken bileraren akta.

2. 2020. URTEKO KUDEAKETA PLANA¹

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren 2020. urterako programazioa aurkeztu da. Dokumentua deialdiarekin batera bidali zen.

Urteko programazioak Legegintzaldiko Planeko lehentasunezko 12 jarduketak eta zenbait ekintza osagarri biltzen ditu. Ekintzaz ekintzako informazioa ematen da, eta esaten da zer unetan dagoen bakoitza, eta zein den 2020. urterako lan-aurreikuspena.

Ekintza osagarriak dagokienez, garrantzitsua da jarraipena egiteko batzorde mistoaren lanarekin jarraitzea, eta lana proiektu indartzea, sareetako pertsonak proiektu zehatzetan sartuz, proiektuotan parte har dezaten aktibatze eta lanean aurrera egiteko.

Bigarrenik, oso aurreratuta dago eredu komunitarioko proiektuaren osagarritzko ekintza, baina proiektua garatzeko esparrua oraindik ez da behar adinakoa, ez Euskadin, ez Katalunian. Kontaktuak izan ziren Taularekin, eta akordio bat gauzatu da Sareen Sarearen eta Taularen artean. Dokumentu bat egin zen proiektuak esparru komunitarioan izan dezakeen kokapenaz (helburuak, programak eta finantzaketa-lerroak), eta harremanetan jarri da EAEk Bruselan duen ordezkariarekin, ikusteko zer neurritan lor litekeen Europar Batasunaren laguntza Europar Batasunaren aurrekontu-aldi berriaren barruan (2021-2027). Indartu gabe dago oraindik, alde batetik, Sareen Sarearen eta Taularen arteko harremana, eta, bestetik, Gobernuaren eta Generalitatearen artekoa.

Azken ekintza osagarriak zerikusia du etorkizunean Euskadiko Hirugarren Sektorearen Behatokia izateko aukerarekin, edo, bitartean, Bizkaiko Behatokia izatearekin, 2020ko programazioko ekintzaren bat sustatzeko edo babesteko.

2020an sustatu beharreko EHSSSEko ekintzei dagokienez, lehendabizikoaz den bezainbatean, zerikusia baitu EEZM sendotzearekin eta transbertsalitatearekin (1)², Gobernuko beste sail batzuek EEZMn parte hartzea sustatzen jarraituko da (hain zuzen ere, gaur Etxebizitza Saila eta Gobernantza Saila daude), eta, gainera, Lehendakariak 2020ko osoko bilkuretako batean parte hartzea aurreikusita dago.

¹ Nahiz eta erabaki zen akta xehaturik ez egitea eta ondorioz baliagarrienak baino ez jasotzea —hau da, mahaiko kide diren erakunde jardunari dagozkionak—, atal hau xehatuta jaso da, bertan Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategiaren jarraipena (EHSSSE) egiten baita, eta, batez ere, hurrengo hilabeteetan sustatu beharreko lana zehazten.

² Zenbakiak legegintzaldiko planean EHSSSEko 36 jarduketaren artean lehenetsitako 12 jarduketaren arteko 11ri dagozkie. 32.a gehitu behar da, erregistro-datuak hobetzei eta baliatzei dagokiona, itxita badago ere zerikusia duelako erroldarekin.

Hurrengo ekintzan (5), eredu mistoarekin zerikusia duten jardunbide onak eta esperientziak identifikatzeko lana Behatokiari ematea proposatzen da.

Egitekoa den Itun Sozialari buruzko Dekretuari (6) dagokionez, dekretua 2020. urtean zehar legegintzaldiaren barruan onartu ahal izatea espero da.

Eredu komunitarioari lotutako ekintzari (7) dagokionez, ekintza osagarrian adierazitakora bidaltzen da.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren laguntzen eta dirulaguntzen azterketa eta hobekuntza deskribatzearekin zerikusia duen ekintzari (12) dagokionez, dirulaguntzetarako urteroko deialdiak egiteaz gain, eta ezagutzaren kudeaketarako lerroa berreskuratuta, EAEko hirugarren sektore soziala (EHSS) sustatzeko neurri buruzko txostenaren barruan, laguntzen deialdiak eta sektore hori sustatzeko beste edozein neurri deskribatuko dira, eta hobekuntzak proposatuko.

Gizarte-azpiegiturak sustatzeko planari dagokionez (17), jakinarazi da gaiari buruzko bilera egin dutela Etxebizitza Sailak eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. Aurrera egiteko, aurreikusitakoaren arabera, hautua hau litzateke: Sareen Sareak premiei buruzko informazioa sistematizatzea, arreta berezia jarrita asoziazionismo txikian eta ertainean. Etxebizitza Sailak baliabideak identifikatzea, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera lan egitea baliabideak izan eta erabiltzeko irizpideen hobekuntzan, bai eta sartzeko prozeduran ere, eta gero kontraste bat egitea EEZMn.

Erroldari dagokionez, zeina, berez, ez baita ekintza bat, jakinarazi da ez dagoela tarterik legegintzaldi honetan dekretu bat onesteko, baina bai lantzeko, oinarriak ezartzeko eta abiatuta uzteko, lehenbailehen arautu ahal izateko.³

EHSSko erakundeen balio osoari eta balio erantsiari buruzko proiektuari dagokionez (28), zeina Sareen Sareak bultzatzen baitu gobernuaren laguntzarekin, 2020rako aurreikuspena da galdetegia ematea parte hartu nahi duten Sareen Sareko erakundeei, hobekuntza-dinamika batean sartu ahal izateko balio osoaren eta balio erantsiaren inguruan, eta hori beste erakunde batzuekin partekatzeko, alderdi hori hobetzera bideratzen diren erakundeen artean jardunbideen trukeari hasiera emanda.

EHSS bera eta haren errealitatea eta ekarpena ezagutarazteko ekimenari (29) dagokionez, kongresua planifikatzen hasi da, eta aurrera egin EITBrekiko akordioan. Era berean, adierazi dute 2020ko aurrekontuan onartzeak bide horretan aurrera egiteko aukera eman dezakeela, eta aurrekontuen zirriborroak kongresuari dagokion sail bat jasotzen duela.

Gainera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila lanean aritu da beste hedabide batzuekin, EAEko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeentzat interes orokorrekoak diren jardueri lotutako komunikazio-ekintzak egiteko akordioak lortzeko. Izan ere, aurten komunikazio-ekintzak (elkarriketak irratian, irati-iragarkiak, bisitak...) egiten hasi da, gizarte-baliabideez, EHSSko erakundeei egunez egun egiten duten gizarte-ekarpenaz..., EEZMn dauden pertsona batzuen parte-hartzearekin. Eta asmoa bide horretatik lan egiten jarraitzea da.

Abenduaren 18an pentsatu da, Sareen Sarearen egoitzan, EITBrekiko hitzarmena sinatzeko, zeinean Sailak 100.000 euro jarriko baititu, eta EITBk beste horrenbeste, urtebeterako, beste urtebete luzatzeko aukerarekin, zenbait kanpaina egiteko esparru moduan.

Sinatu ondoren, proposamen sorta bat dago; nola eta noiz aurrera eraman erabakiko da. Alde horretatik, maiatzaren 12 inguruan, kanpaina bat egin daiteke, eta fokua non jarri erabaki beharko litzateke.

EAEko Hirugarren Sektore Sozialaren egoerari, sustapen-neurriei eta Estrategiaren hedapenari buruzko aldizkako ikerketa- eta ebaluazio-zikloari (33) dagokionez, Estrategiaren jarraipenaz den

³ Horren barruan, geroago, gogoeta bat hasi da EAEko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko Legearen 16. artikuluan bildutako erakundeen betebeharren norainokoa argitzei buruz (18. ekintza).

bezainbatean, 2018ko txostena egin zen, eta Legebiltzarrera bidali. Era berean, 2019ko txostena itxi egin beharko litzateke, eta igorri. Liburu Zuriari dagokionez, fase kuantitatiboa eta barometroaren gauzatzea amaitzen ari dira. Abendu honetan baliatzeko moduko zirriborro bat egongo da, eta barometroa urtarrean aurkeztea aurreikusten da, geroago Liburu Zuriaren fase kualitatiboarekin jarraitzeko, itxi ahal izateko, eta orientabideak ezartzeko 2020. urtean zehar. EHSS sustatzeko neurriei buruzko txostenari dagokionez, uda inguruan aurkeztea aurreikusten da.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Behatokia abian jartzeari (34) dagokionez, aurretiko jarduketa batzuk egiten ari dira (erakundeekin hitz egitea), 2020an abian jartzeko asmoarekin.

Legegintzaldiko planean aurreikusi gabe egonda garatzen ari diren ekintzei dagokienez, gobernu irekiari lotutako ekintzaz gaur hitz egingo da, eta hirugarren sektore soziala berritzeari buruzko ekintzari dagokionez, bai Sareen Sareak bai Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Innobasquekin hitz egin dute, lan bat elkarlanean egiteko.

Esku-hartzeen txandan, lehenik eta behin, EITBekin sinatuko den akordioaz eta proposamenaren testuaz galdetu da. Erantzun da proposamena printzipio-mailakoa dela nabarmen, eta oraindik lan egiten ari dela komunikazio-mailan. Espero da testu abenduaren 18rako izatea, partekatu eta akordioa itxi ahal izateko.

Azpimarratu da garrantzitsua dela komunikazio-ikuspegia zaintzea eta hedabideek, agentziek eta produktoreek arduraz jokatzeko kontu sozialen tratamenduan eta pertsonen eragiten dieten moduan (alderdi pertsonalak), eta nabarmendu da aukera bat dela akordioa, lan-ildoak eta hobekuntzak sustatzeko, ildo honetan eta beste batzuetan, komunikazio-ekintzari dagokionez. Ikuspegi horrekiko adostasuna adierazi da.

Bigarrenik, adierazi da Estrategian falta dela aipamenen bat egitea 65 urtetik gorako kolektiboari eta bakardadeari, zaintzei eta abarri lotuta dauden gaiei buruz. Adinekoen kolektiboa garrantzitsua izan arren, ez da jasotzen estrategia honetan lehenetsitako ekintzetan; bai, ordea, beste esparru batzuei dagokien ekintzaren batean.

Horri dagokionez, gogorarazten da Estrategia EEZMra eramaten dela, eta horrek oniritzia ematen diola. Lehenetsitako hamabi ekintzak ere EEZMra eramaten dira. Azpisektoreetako politikak ez daude jasota (ez adinekoei dagokiena, ez eta beste edozein ere), eta hizpide duguna komuna da: hirugarren sektore soziala oro har sustatzeko estrategia. Horrek ez du esan nahi proposatzen diren gaiak zein beste batzuk ezin direla landu EEZMn, eta, egokitzeaz joz gero, jaso egingo dira, baina estrategiaren edukia Euskadiko hirugarren sektore sozialaren sustapena da.

3. EKINTZA TRANSBERTSALAK⁴

- **Gobernu Irekiko zuzendari Luis Petrikorena Arbelaiz jaunak egindako aurkezpena.**

EEZMn zergatik dagoen azaldu du. Gobernuaren besteko proiektu batean lan egiten ari da, lehen aldiz lortu delako hiru erakunderen gobernu irekiko politikak ildo berean jartzea: Udalak, diputazioak eta gobernuak; baina ahalegina egiten ari da gizarte zibila ere inplikatzen.

Gobernu irekirako aliantzaz mintzatzera etorri da. (Open Government Partnership) Euskadi proiektua eratu da. OGP erakundeak 85 herrialde baino gehiago biltzen ditu.

Proiektuak, lehenengo aldiz, Innobasque berrikuntzaren euskal agentziaz gain, zazpi erakunde bildu ditu proiektu komun batean, ekintza plan bat sortzeko eta horren bidez ikasteko nola erabili gobernu irekiak landu ohi dituen gaiak, gobernu irekia egiteko teknikak eta moduak, egiten ari diren politika publikoak eraginkorragoak izan daitezten.

⁴ Atal honetan ere edukia aktan xehatzea hautatu da, kontuan hartuta Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ez diren beste sail batzuek EEZMn parte hartzea garrantzitsua dela mahaiarentzat berarentzat, eta EHSSSEren helburu bat dela.

Foro erregularra plan honetako kontseilu aholku-emaille moduko bat da, hiru hilez behin biltzen dena, eta ikusten da zein den bilakaera, baina, gainera, zenbait elkarte daude, parte hartzen ari direnak konpromisoetan lan egiten ari diren taldeetan.

Bilera bat egin zen 2018ko uda aurretik eta 120 pertsonaren artean orain dela urte batetik eta 5 hilabetetik garatzen ari diren bost konpromiso landu zituzten. Orain lantzen ari diren ondorioetako bat, azken foro erregularrean atera zena, hau da: komunikazioa gehiago landu behar da, jendeak ez gaituelako ezagutzen. Konpromisoak zein diren eta OGP erakundean egoteak zer esan nahi duen jakinarazteko dibulgazio-bideoak egiten ari dira.

Konpromisoak hauek dira:

1. Kontuak ematea aginte-planen bidez, non konpromiso batzuk baitaude, herritarrek, elkarteek edo interesa duten beste erakunde batzuek erabil dezaketen plataforma motaren batean edo linean ez den beste bitartekoren batean jarraituak izateko. Bigarren alderdia da nola lortu herritarren iritziek eragina izatea kontuak emateko moduan, eta horretan lan egiten ari da orain.
2. Bigarren konpromisoa pixka bat teknikoagoa da, eta datu irekiekin du zerikusia. EAEn dagoen plataforma batek (open data Euskadi) ia 200.000 datu multzo ditu, baina % 95-% 99k inoiz ez du haiei buruz ezer entzun, oso datu teknikoak direlako, eta, hala ere, Administrazioak askatu egiten ditu. Konpromisoaren xedea da jakitea zer pertsonak, elkarteak, erakundeak... erabil ditzaketen datu horiek, Administrazioko maila guztietan zabal daitezkeen datu multzoak prestatzeko, hau da, datuen trazabilitate hori bermatzeko Administrazioko maila guztien artean.
3. I-lab da hirugarren konpromisoaren izena, parte-hartzean sumatzen den arazoari lotuta: izan ere, herritarren parte-hartzea falta da, edo herritarren artean sustatu ohi dugun parte-hartzeak ez du behar bezalako baliorik. Hala, I-lab kontzeptua parte-hartzea lortzeko modu berri baten ondorioa da, eta, gainera, parte-hartzea lortzeko bide berri horiek funtzionatzen duten aztertu behar da. Konpromisoak berekin dakar emaitzak partekatu eta sareak sortu behar izatea.
4. Laugarren konpromisoak zerikusi handia du aurrekoarekin, eta Gasteizen egindako herritartasun-eskolan oinarritzen da. Ahalegina egiten ari da sistema baten arabera antolatzeko edukiak, gaitasunen arloko prestakuntza, parte-hartzearen kultura-arloko prestakuntza, zeinak herritartasun-eskola ireki bat (open eskola) izan beharko bailuke, materialak eta edukiak bila ditzan, gure parte-hartzea informatuagoa eta antolatuagoa izaten laguntzeko.
5. Bosgarren konpromisoa Integritatearen Euskal Sistema ezartzen ahalegintzen da, eta horren helburua da erakundeen artean gutxieneko akordio batzuk sinatzea, zehazteko nolakoak izan behar duten gure kode etikoek, integritate-neurriek norantz jo behar duten, eta eraginkorrak diren ala ez kargu publikoak dituzten pertsonen ezartzen zaizkien neurriak.

Bigarren planean, halaber, premiazkoa izango da herritarrek parte hartzea eta EEZM lantzen ari den gai batzuk kontuan hartzea, zeinetan ikuspegi irekiagoa izan nahi baita, hausnartzaileagoa, erabakiak datuekin hartuta.... Interes handia piztu dezakete.

EEZMn lantzen ari diren gaien barruan egon daitezkeen datuak badaude, datu multzo hori aurkitzen saia daiteke, eta aztertu. Era berean, batera lan egin daiteke berritzen ahalegintzen ari diren prozeduretan.

Gainera, bigarren planak tematikoagoa izan behar du, gehiago erreparatu behar die gai jakin batzuei; adibidez, biztanleriaren zahartzeari.

Mikel Bartureni eman zaio hitza, bere esperientziaren berri eman dezan: izan ere, Sareen Sareko koordinatzaile moduan parte hartzen du OGP Euskadiren ekimenetan. Esan du prozesuak balio bikoitza duela; alde batetik, ez dagoelako administrazio bakar bat, guztiak baizik, eta horrek konplexutasuna handia dela adierazten du. Eta, bestetik, berezko balioa duelako hor gizarte zibil moduan egon ahal izateak, parte hartuz eta ekarpenak eginez.

Sareen Sarearen bidez parte hartzeaz gain, uste du garrantzitsua dela nabarmentzea zer lan egiten duten EAEko hirugarren sektore sozialeko erakundeek konpromisoetako taldeetan: Unicef-ek adibidez, hirugarren eta laugarren konpromisoan, edo HIRUKIDEx I-lab-en eta Open Eskolan. Lan horri esker gizartean dagoen ezagutza hori guztia bil daiteke, eta, horrenbestez, erakundeak sendotu.

Esku hartzeko txandan, egindako aurkezpena eskertu da, eta esan, herritarren parte-hartzeari dagokionez, egun aipatzekoa dela kalera atera diren 30.000-40.000 adinekoek egindako manifestazioa, urte osoa baitaramate protesta egiten pentsioengatik, eta prozesu hauetan guztietan arreta jarri beharko litzatekeela gai horretan.

Berriz ere, eta EHSSSEren 2020ko programazioari buruzko bigarren esku-hartzeaz adierazitakoaren antzeko ildotik, erantzun da OGP lanean ari dela erakunde batzuekin prozesu jakin batzuetan oinarrituta, bai eta herritarren eta erakundeen arteko akordio batzuen bidez ere, eta eztabaidatu nahi den edozein gai proposa daitekeela, eta ados jar daitekeela gaia lantzeko moduz, esku hartu behar dutenez, baina OGPrentzako proposamenak dagozkionari helarazi behar zaizkiola, eta prozesuak hasten direnean.

▪ **Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendari Mario Yoldi Domínguez jaunak egindako aurkezpena.**

Etxebizitza Sailak jakinarazi du legegintzaldiko lehen urtean itundutako 14 planetan parte hartzen ari dela, eta, horri esker, politika horiek guztiak dagozkien helburuekin batera 2018-2020ko Etxebizitza Plan Zuzentzailera eraman zirela, hots, etxebizitza-politikaren plan estrategikora.⁵

Etxebizitzak lagatzeari dagokionez, legegintzaldi honetan 100 laga dira zenbait proiektutarako.

Egoera jakin batzuetan, esleipen zuzena egiteko ezohiko mekanismo batzuk daude, behar bereziekin zerikusia dutenak, eta hirugarren sektore sozialeko entitateentzako lagapenak biltzen dituztenak. Alokairu horrengatik kontratu bat sinatzen da prezio politiko batekin, eta, batez ere, jarraipena egiten da; hau da, entitateei deitzen zaie urtero, eta jardueraren justifikazio-txostena eskatzen da. Laga diren etxebizitza horiek proposatutako helbururako erabiltzen ari direla frogatu behar da.

Kasu orotan —hala nola lokalak lagatzean—, sistema bat behar da, beharren gaineko ikuspegi sistematiko batetik abiatzen dena, tamaina txikiena duten erakundeen beharrak ere kontuan hartuta, eta lehentasunak ezartzea ahalbidetzen duena, baliabideak emateko irizpideak sendotuta.

⁵ Etxebizitzaren Euskal Behatokia argitaratuta daude alokairu-politikaren ebaluazioak, birgaitze-politikarenak, 2018ko laburpen-txostena, eta, abenduan, ebaluazio integralari buruzko txostena argitaratuko da.

Hirugarren sektoreko entitateak balia daitezkeen lokaletan sartzeari dagokionez, ez da deialdi publikorik egin zehaztuz zein diren balia daitezkeen bitartekoak (normalean ez daude hirietako erdialdean) entitateek parte har dezaten arazo burokratikoengatik, baina plan zuzentzailearen konpromisoa mantendu egiten da eta, beraz, erronka da proiektu sozialei lotutako hirugarren sektoreko erakundeen beharren sistematizaziotik abiatzea, eta, horretan oinarrituta, ekarpen hori behar bezala egitea ahalbidetzen duen sistema bat bilatzea, interesa duten eta etxebizitza-politikaren parte diren helburu batzuk beteta.

Alde horretatik, dio, Etxebizitza Saila guztiz prest dago elkarlanean aritzeko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, EEZMren barruan behar horiek sistematizatzeko gauza izateko eta konponbideak aurkitzen ahalegintzeko.

Amaitzeko, Etxebizitza Saila 65 urtetik gorako pertsonekin egiten ari den politikak aipatu ditu, bai eta cohousing senior eta belaunaldiarteko araudi berria eta birgaitze-araudi berria ere.

4. ITUN SOZIALARI BURUZKO DEKRETUA

Itunari buruzko dekretuak EEZMk egindako azken osoko bilkuratik (abenduarien 5a) izandako garapenaz mintzatu da, bai eta gai horretaz egindako bilera eta izandako harreman guztiez ere.

Bildu diren azken alderdiak eta berritasunak aipatu dira (banatu den etorkizuneko dekretuaren zirriborroan gorritz nabarmenduta daude). Eta, ondoren, 7., 10., 13. eta 20. artikulua azpimarratu dira.⁶

7. artikulua sartzeko baldintzak ezartzen ditu: derrigorrezkoak eta gehigarriak.

Derrigorrezko baldintzak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 64. artikulua ezarritakoak dira, baina testuak inguruan aurrez presentzia izan behar delako baldintza zehazten du, aipatuta lurraldeari lotutako ibilbidea egiaztatu behar dela, komunitatearekin batera lan eginda (sistema publikoak, erakundeak, pertsonak, baliabideak, ekimenak...), itundutako zentroan edo zentroetan arreta hobetzeko.

Hautazko baldintzak arreta-eredu komunitarioari lotuta daude, eta, arian-arian, deialdietan sartu beharko dira. Horri dagokionez, kontuan izan behar da ezen, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema taxutu den moduari ondorioz, esparruetan (adinekoak, desgaitasuna, bazterketa, haurrak...) ezaugarri desberdinak zituzten aurretiko sareetatik abiatu baitzen, orain, entitate eta esparru guztiek ez dituztela ezaugarri berak.

Hartara, hautazko baldintzen bidez, arreta-eredu komunitarioaren aplikazio eraginkorrean aurrera egin nahi da. Eta, horrela, honako hau proposatzen da:

- a) Sartzeko baldintza gehigarriak zehaztean, entitate ituntzaileak ikuspegi komunitarioarekiko koherentziarik handiena bilatu behar du beti (derrigorrezkoek gain, gutxienez 3. atalean aipatuetakoa bi ezarri beharko ditu sartzeko baldintza moduan), eta deialdietan 3. atalean aurreikusitako baldintzak sartu beharko ditu, bai eta gizarte-zerbitzuetarako Europako borondatezko kalitate-esparruarekin eta ikuspegi komunitarioarekin koherenteak diren beste batzuk ere. Betiere hori posible izanez gero, kontuan hartuta zer lotura dagoen ituntze-beharren eta, inguruan eta deialdiari lotutako zerbitzurako edo zerbitzuetarako, balia daitezkeen eskaintzaren ezaugarrien artean.
- b) Desgaitasuna duten edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonentzako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako katalogoko zentroei dagokienez, erakunde ituntzaileek beren plangintzan uste badute ezen, eremu bati edo zentro mota bati edo batzuei dagokienez, baldintza

⁶ Geroago, puntu nagusien azalpen azalekoa —ez hitzez hitzekoa— egin da, azalpenean aipatu baitziren eta dekretuaren funtsezko oinarriak baitira.

guztiak betetzen dituzten eta, batera, eskatutako plaza guztiak kudeatzeko ahalmena duten erakunde itunduak egon daitezkeela, deialdiak sartzeko baldintza guztiak kontuan hartuko ditu.

Arreta jarraituaren iraupenari dagokionez, esan da egokiagotzat jotzen dela lau urte aipatzea, kontuan hartuta lau urtekoa dela itun baten hasierako gehieneko iraupena. Bestalde, azken atalari emandako idazkerak aukera ematen du kontuan hartu ahal izateko erakunde-taldeek aurkeztutako proposamenak, baldin eta guztiek betetzen badituzte sartzeko baldintzak.

Azkenik, garrantzizkotzat jotzen da adieraztea sartzeko baldintzek ez dutela loturik figura juridikoarekin; bai, ordea, bereziki baldintza gehigarriek, egokitasun-printzipioarekin (kalitatea), zeinak nagusi izan behar baitu interes orokorreko gizarte-zerbitzuen kudeaketan, beste printzipio batzuekin batera; besteak beste, hauekin: unibertsaltasuna, elkartasuna eta eraginkortasuna.

Pentsatzen da itun-araubidea figura juridiko (irabazi-asmorik gabeko) jakin batzuetara mugatzea, 12/2008 Legean aurreikusita ez egoteaz gain, ez zaiola egokitzen tratu bera emateko eta ez diskriminatzeko printzipioari, zeina aurreikusita baitago 2014/24/EB Zuzentarauan eta, transposizioaren ondoren, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean.

Printzipio beraren eta Zuzentarauak eta 9/2017 Legeak aurreikusien ondorioz, sartzeko (ez hautatzeko) baldintza guztiak betetzen dituzten proposamen guztien onarpenean oinarritzen da zirriborrea.

Eta pentsatzen den bezala gizarte-zerbitzuen ezaugarriek, interes orokorreko gizarte-zerbitzu diren aldetik, bai eta kontuan hartu behar dituzten printzipioek ere, eskatzen dutela, itun sozialaren moduko esparru batean behintzat, irabazi-asmorik ez izatea praktika moduan (irabazirik eza), eta inola ere ez bateratzea eta, jakina, ez banatzea balantze batean balizko "emaitza positibo" bat, itundutako zerbitzuei finantzaketa publiko osoa esleitu behar zaie, hezkuntza-arloko itun-araubidean gertatzen den bezala.

Bi printzipio horiek (hautaketarik eza eta irabazirik eza) ditu oinarri itun sozialeko araubideak, zirriborroan jasotzen den dekretu-proposamenaren arabera.

Horrenbestez,

A) **10 artikulua** honako hau xedatzen du:

- Behin eskaerak zuzenduta, eta jarduteko eta sarbide-eskakizunak betetzeko gaitasuna egiaztatuta, eskakizunok betetzen dituzten eskaeren aldeko ebazpena emango da, betiere aurkeztutako proiektuaren eta aurrekontuaren balorazioa bat badator arretaren kalitatearekin eta/edo erakundeak aurreikusitako kostuarekin, itunaren erakunde ituntzaileak deialdian finkatutako kalitate-parametroei eta modulu ekonomikoen zenbatekoei dagokienez.
- Batzordeak (baloratzekoak), aldeko ebazpena izan dezaketen eskaerak identifikatu ondoren, plazak esleituiko dizkie zentroei, kontuan hartuta, erakunde ituntzaileek zehatz ditzaketen beste batzuen artean, honako irizpide hauek:
 - a) Lehenbizi, plazak esleitzeko garaian, zentroan lehendik plaza okupatzen zuten eta zerbitzua jasotzeko eskubide aitortua duten pertsona guztiei bermatuko zaie plaza, errotze-printzipioari jarraituz, eta, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, zentro konkretuaren esleipena aldatu ezean.
 - b) Hala badagokio, gainerako plazak, hau da, deialdian aurreikusitako plazen guztizkotik geratzen direnak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 65. artikuluan ezarritako diskriminazio positiboko irizpideei jarraituz esleitu dira, hirugarren sektore sozialeko erakundeetatik hasita, beraz, eta banaketan nolabaiteko proportzionaltasunari eutsiz.

- Aldeko ebazpena izan duten eskaerak, zeinei plazarik ez baitzaie esleitzen aurreko eragiketaren ondorioz, kontuan hartu ahal izango ditu entitate ituntzaileak deialdi beraren barruan formalizatutako itunak azkenduz gero, edo uko eginez gero, itunak indarrean egon bitartean eta plaza horietarako, eta aukera horretatik ez da inolako eskubiderik ondorioztatuko entitate eskatzaileentzat, harik eta, hala egokituz gero, kontratu-programa egokia izenpetu arte.

B) Eta honako hau, berriz, **13. artikulua**, 1 zenbakiko a letiran:

1.- Erakunde itunduek betebeharrak izango dituzte, alde batera utzi gabe zerbitzuaren ardura duen administrazioak ezar ditzakeen beste batzuk:

- a) Horniduratik erator daitezkeen emaitza ekonomikoak itunpeko zerbitzuetara bideratzea, eta, nolana ere, finantzaketa publiko osoa eta ordaintzera behartuta dauden pertsonengandik datorrena, halakorik balego.

Azkenik, esan da hitzarmenei buruzko artikulua, **20.1.a) artikulua**, zuzenean bidaltzen duela 12/2008 Legearen 69. artikulura, eta argi uzten duela irabazi-asmorik gabeko erakundeekin baino ezin ezar daitezkeela, eta begi-bistakoa dela kontratazio-prozedura ezin zaiela aplikatu hitzarmenei, zeinak, edozeinetara ere, 12/2008 Legearen xedatuaren arabera, itun-araubidera egokitu behar baitira hitzarmenen izaeraren aurkakoak ez diren alderdi guztietan.⁷

Adierazi **ondoren** aurrerantzean, jakina, dekretu-proiektuari buruzko idatzizko alegazioak aurkezteaz gain, proiektuaz trabarik gabe eta irekitasunez hitz egin daitezkeela, **hitza hartzeko txanda** hasi da.

HIREKIN elkarteak ezabatu diren eta gorritz ez dauden zatiez azalpena emateko eskatu du; besteak beste, 3. artikuluan eta aurreko bertsioetik desagertu diren beste atal batzuez. Nagusiki erakundearteko akordioaren ondoren zerbitzu juridikoekin egindako lanaren ondorio direla argitu da.

REAS EUSKADI sareak adierazi du testua uda aurrekoaren guztiz bestelakoa dela, eta, horren ondorioz, zaila dela landu eta eztabaidatu ahal izatea, zerikusi txikia duelako aurreko dokumentuaren oinarriekin. Benetan parte hartzeko gaitasunarekin zerikusia duten elementu horiek gobernuak eta hirugarren sektoreak gehixeago zaintzeko eskatu du. Eta esan du ez dela dokumentuaren alde agertuko, azken idazkera dela-eta oraindik partekatu behar duelako bere sareko entitateekin.

⁷ Bileraren amaieran, edozeinetara ere hala esplizitatzeko eskatu da.

Gainera, uste du edukiak ez daudela behar adina landuta, eta funtsezko elementu bat gehitu behar dela adierazi du, bere sarearen lanarekin zerikusia duena: erosketa publiko arduratsua. Eta esan du ezen, bere iritziz, ez dela egia ezin dela arautu itun-araubidea irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat baino ez, eta gehitu du zuzentarauek planteatzen dutela administrazio publikoek ahalmena izatea araubide horietan sartzeko baldintzak ezartzeko. Izan ere, jakinarazi du, zenbait autonomia-erkidegok irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat bakarrik arautu dute.

EAPN sarekoek uste dute ezen, zirriborroa lehenago izan balute, kontraste bat egin zitekeela, eta horrek beti segurtasun handiagoa ematen duela lan egin eta jarrera hartu ahal izatean.

Hori esanda, adierazi du arauak interpretatu egin behar direla, eta proposatzen den interpretazioak ez duela inolako zerikusirik bere aholkularitza juridikoak, itun-araubidea irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat baino ez arautzeko aukeraz den bezainbatean, egin ohi duenarekin. Era berean, uste dute borondate politikoa dela kontua.

Bestalde, aukeratzat jotzen du, itun-araubideari dagokionez lanean emandako zenbait urteren ondoren, akordio instituzional bat lortu izana, eta aitortzen du oso aldaketa garrantzitsu bat gertatu dela azarotik, gobernu eta hirugarren sektorea hitz egiten hasi direla, lortutako erakundearteko akordioaz geroztik, eta bi aldeak ahalegin handia egiten ari direla.

Aurreko dokumentuarekin alderatuta, aldaketa batzuk izan dira idazkeran, ziur aski ñabardura edo ordena-aldaketa huts batzuen ondorioz, baina badago ezabatutakorik, eta garrantzitsua da hori ulertzea. Zehazki, 13. artikuluan, aurreko f letra desagertzen da: <<f) Administrazio eskuduneko organo egokiek ituna finantzatzeko emandako funts publikoak kontrolatzeko jardueren mende jartzea>>. Erantzun da errepikapenagatik desagertu dela (ikus, adibidez, egungo f letra; hots, aurreko e letra);⁸ eta azalpena onartu da.⁹

Azkenik, adierazi du 13.1 artikulua idazkera berria —a letra gehituta—, funtsezkoa dela eta harekin ados dagoela, eta amaitzeko, esan du horrela egoera onean dagoela sarean aldezteko etorkizuneko dekretua izapidetzearen aldeko jarrera, egin daitezkeen ekarpenak inola ere baztertu gabe.

LARES EUSKADI elkarteak adierazi du dekretua aurrera ateratzea nahi duela, baina kezkarria dela testuan aldaketak gertatu ahal izatea izapidetzen den bitartean. Uste dute itun-araubideak irekita egon behar duela irabazi-asmoa duen entitateentzat. Izan ere, 12/2008 Legearen 61.etik 69.enera bitarteko artikulua batzuei zein bestei buruzkoak dira bereizi gabe. Gainera, enpresek aspalditik dute presentzia esparru eta lurralde batzuetan. Azkenik, esan du izapidetzen jarraitzea babestuko dutela.

HIREKIN elkarteak, prozedurari dagokionez, esan du ez duela aukerarik ematen behar bezain lasai partekatu, ulertu edo kontrastatzeko dokumentuko aldaketei buruzko azalpenak.

Edukiari dagokionez, hau esan da:

- Kezkagarria da 13. artikuluan j) letra alde batera uztea: <<EAEko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzea, zeinahi dela ere erakunde itunduaren figura juridikoa>>.
- Planteamenduan, zentzuzko zalantzak sortzen dituzten baieztapen batzuk egin dira; adibidez, hautatzea baztertu behar dela.

⁸ <<Itunaren administrazio esleitzailari laguntzea kontrol-, ikuskatze-, fiskalizatze- eta auditatze-lanak egiten, eta, zehazki, hari ematea informazio ekonomikoa, fiskala, laborala, teknikoa, asistentziala eta beste edozein motatakoa, baldin eta itunaren exekuzioa baloratzeko eskatzen badu. Informazioa ematean, datuen babesari buruzko legedia eta aplikatzekoak diren gainerako arauak bete beharko dira>>.

⁹ Nolanahi ere, gogoeta egin daiteke berriz horri buruz.

- Pentsatzen zen irabaziari, irabazirik ezari edo berriz inbertitzeari lotutako kontua hobeto zegoela kokatuta sartzeko baldintzetan betebeharretan baino, eta entitateaz den bezainbatean, itundutako zerbitzuaz edo zerbitzuez den bezainbatean izan beharrean.
- 7. artikuluko 5. zenbakiari dagokionez, pentsatzen da ez dagoela bermerik, idazkerak administrazio ituntzailearen irizpidearen mende uzten duelako sartzeko baldintza gehigarri guztiak (3. zenbakikoak) deialdietan sartzeko erabakia. <<...plangintzan uste badute litekeena dela eremu batean eta zentro mota batean edo gehiagotan erakunde itunduak egotea, betekizun guztiak betetzen dituztenak eta, denak batera, eskatutako plaza guztiak kudeatzeko gaitasuna dutenak...>>
- 4. artikuluari dagokionez (definizioak), zalantza da ea ekipamenduaren titulartasunari buruzko planteamenduak jasotzen ote dituen 12/2008 Legearen 64. artikuluan bildutako aukera guztiak — bereziki, erabiltzeko eta gozatzeko eskubide erreala—.

Prozedura ez dela egokiena izan errepikatu du **FEDERPEN** elkarteak. Gainera, esan dute lehenengoz parte hartu dutela mahaian gaur aurkeztutako dokumentuarekin eta ezin izan dituztela ondo jarraitu azalpenak; horregatik, ezin dute iritzi erabatekorik eman.¹⁰

FEDEAFES federazioak, lehenik eta behin, esan du aldaketak aztertuko dituztela, eta deigarria dela aplikazio-eremuari buruzko artikuluan, 2.enean, baztertu izana bizitza independentea egiteko ingurunean laguntzeko zerbitzuak, desgaitasuna, desgaitasun intelektual edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat, bai eta esku-hartze sozio-educatibo edo psiko-soziala egiteko zerbitzua ere.¹¹

EHLABE elkarteak jakinarazi du aztertu behar dutela proposatzen ari diren aldaketen inpaktua, baina ohartu dira testuan, aurkeztu diren oinarritzko ildoetan, prozesuari ekitean zeuzkaten kezka nagusietako batzuk bildu direla.

FEVAS ordezkatzen dutenek bi prozesu egon direla adierazi dute. Lehena maiatzean hasi zen, eta urriaren 17an amaitu, eta ez litzaieke gustatuko errepikatzea, baina, urritik gaur egun arte, gobernuak ahalegina egin du aurrera egiteko agertzen ziren kezketako batzuen konponketan. Gaur aurkeztutako testua dagoen moduan, FEVAS osatzen duten erakundeen artean partekatu behar dute, eta irakurri, iritzia emateko.

EEZMko presidenteak esan du sektoreak ez duela adostasunezko jarrerarik, baina, nolanahi ere, dekretua oso nuklearra dela, eta kezka-iturri dela ondo eratuta geratzea, pertsona askori, erakunde askori eragiten dielako, eta ordezkatuta dauden elkarte guztiekin partekatu beharra dagoela.

Gobernuak ekarpenak eta agertutako zintzotasuna eskertu ditu. Azpimarratu du gaurko bilera garrantzitsua zela zalantza batzuk argitzeko, eta kontua nola dagoen aztertzeko EEZMrekin.

Aurki, dekretua izapidetzen jarraitzen den jakinarazi beharko da. Gaur esandakoa sailburuari jakinaraziko zaio, hurrengo urratsa egiteko, hala egokituz gero, hots aurrez onartzeko agindua emateko (dekretu-proiektuaren testuari erantsita joango litzateke).

Aurretiko onarpena gertatzen bada, alegazio-fasean ondo legoke hitz egiten jarraitzea, idatzita aurkeztu beharrik gabe erraz argitzeko moduko zalantzak egongo direlako, baina beste zalantza batzuk nahitaez idatzi beharko dira, idatzizko erantzuna jasotzeko.

¹⁰ Geroago, bidalitako mezu baten bidez, egungo idazkeraren alde agertu da FEDERPEN. Nolanahi ere, gogorarazi behar da kasu honetan, eta kasu guztietan, Gobernuak izapideekin jarraitzearen alde egiten dela, dekretu-proiektua dela-eta egin daitezkeen alegazioak baztertu gabe.

¹¹ Zerbitzu guztiak kanpo utzi dira. Itun-araubidea, 12/2008 Legearen 61.1 artikuluan xedatuaren arabera, zentroetara bideratzen da.

Aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, EEZMko presidenteak bukatutzat jo du bilkura Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 12ko 12:40an.

O.E.

Pablo González Gutiérrez jauna
EEZMko presidentea

Leire Martínez Pérez andrea
EEZMko idazkaria